

# Bazterbideak

Aintzane Usandizaga Lopez



Zumaiko Udala

*en skara  
txanplan*

# Bazterbideak

Aintzane Usandizaga Lopez

Julene Azpeitia 31. ipuin lehiaketa

2018

2. saria

2018ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Aintzane Usandizaga Lopez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Kartoizko kartelaren ondoan gelditu du autoa Lucasek, lurra harrotuz: *Dortoka badago*.

Hiru hilean behin zeharkatzen du 9. errepidea Córdoba-tik Santiago del Esterora; bospasei bilera kudeatu –fumigazioak gora, uztak behera– eta buelta. Paraje laua, lehorra izaten du bidelagun; kolore bera dute lurrak, etxeek, bidean gurutzatzen diren behi eta ahuntzek. Motorretan hiru edo launaka pasean dabiltzan biztanleek.

Errepidearen bazter bietan zintzilik dauden ehunek soilik alaitzen dute zertxobait panorama; bertako ilez, bertako koloratzaile biziz, bertako txor-txor-txorrez eginiko ehunak. “Tipikotasun” hari aspalditik egiten dio harrera eszeptikoa. Emaztearekin Purmamarcara egin zuen azken bidaiara hura etortzen zaio gogora halakoetan. Azoka turistiko hutsa zen ordurako iparraldeko herritarra, Argentinako ustezko azken aborigenen ustezko produktu tipikoen salmenta. Barre egin zieten Silvinak eta biek turista haiei guztiei, berdin-berdin erosten zituztelarik ezti eta kokazko gozoki “tipikoak” edo alpaka-ilezko etxeko zapatila “tipiko aborigenak”. Plazaren ertzean zegoen adineko emakumearengana jo zuten zuzen beraiek. Ez zuen besteen presazko aspertura hura erakusten, benetako *cholita* trazarak zituen: azala urteek eguzkitan beratua eta ile urdin distiratsua txanopear, txirikorda estuan. Hark zeuzkan plazako oihala garestienak.

–Ederrenak ere badira. Zeuk egiten dituzu, ez al da hala? Nabarmen.

Bere denbora hartu zuen *cholita*k, burua apenas bihurtuz.

–Ez, ez, jauna. Erosi egiten ditut. Zein nahi duzue?

Barre egin behar, zer erremedio!

Aspaldiko kontuak dira horiek, baina. Parke tematiko bihurturik behar du honezkero Argentinako iparraldeak. Emaztearekin asko bidaiatu izan zuen, ezkondu aurretik baina gehiago, baita Martina jaio zenean ere. Produktu agrokimikoak saltzen zituen enpresa hartan hasi zenean gutxiago ziren famili irteerak. Lucila etorri zenerako Silvinak amore eman zion bidaiak proposatzeari.

Kartelei begira entretentzen ditu begiak Lucasek paisaia aspergarritik. *Ahuntz esnea hemen. Izotza salgai*. Bikote bitxietan ere ageri dira: *Goma konponketak eta txerri gazta*. Behin emakume bat suge bat saltzen ikusi zuen, narrastiaren gorputz

luzanga lepoan kiribildurik. Ederra zen benetan, piztiaren morboaz haratago. Badaki errepidearen kostalde honetan, ilunkara jartzen denean, bestelakoak ere saltzen dituztela emakumeek –eta ez hain emakumeek–, sarritan telefono txartelen karga truke.

Arreta eman dio, baina, kartel haietako guztietako batek: *Dortoka badago*. Dortoka, singularrean; eta badago, gasolindegietan *ur beroa badago* ipintzen duen modu berean, mate menpekotasunaren bandera harroak. Haur bat dago kartel horren ondoan, salgai duen dortoketako bat buruaren gainetik altxatuz auto bat pasatzen den aldiro. Sei urte izango ditu, asko jota. Amiñi bat penak, amiñi bat etxean ereingo duen pozak bultzatuta, maskota erostea pentsatu du. Lucilari gustatuko zaio. Eta Silvinari, seguruenik.

Oroiminaren bulkadaz hautsa harrotu eta mutikoarengana hurbildu da, beraz.

–Arratsalde on *chango*, zenbatean dituzu?

–Txikiak ala handiak, jauna? –begi erraldoi haiekin–. Txikiak garestiagoak dira. Handi gehiago dauzkat han barreneko errantxoan, aukeratu nahi baduzu.

Lautadaren sabelaldean dagoen adobezko etxe bat seinalatu du, *Dortoka badago* karteletik geziak apuntatzen duen norabide bertsuan. Animaliei begiratu die Lucasek: bat baino gehiago dira, kartelari kontra eginez. Ezti koloreko oskolak dituzte eta azkazal indartsuko elefante oinak. Kaxa erdia hartzen duen narrastia begira duela iruditu zaio, gainontzeko txikiagoen mugimenduek gogaituta. Guztia da kartoizkoa hemen: animaliak daudeneko kaxa, kartela, dortokaren bisaia. Purmamarkako *cholitaz* gogoratu da.

–Handi hauxe emadazu.

–Hogeita hamar peso, jauna.

Txistuka egin du etxerako bidea Lucasek, irratitik datorkion Arjonaren azken abestiari

lagunduz. Bolumena igo du, Martinaren zentsurapean ez dagoenetan soilik entzutera ausartzen den melodia likatsua askatuz. Eskerrak bidaia luzea duen aurretik tenore honetaz gozatzeko.

Ez da samurra izango etxera heltzean hartuko duen zaputza, ez da erraza izango bost orduko gidaldiaren ostean alaba zaharrenaren diskurtsoari eustea. Jasanezina dago Martina unibertsitario sasi-hippy-aberaskume horrekin dabilenetik. Eta kirchnerista gainera, arraioa! Barazkijalea izatearekin nahikoa ez balitz bezala. Lucilak ere hasierako sorpresa aurpegia ahizpa zaharrenaren kopiagatik aldatuko du, mesprezuzko zehar-begiratu horrekin. Gazteenari oraindik txarto ateratzen bazaio ere, gehiago minduko du aita. Emazteak sorbaldak jasoko ditu. Alabak jaurtiki dion animala trafikoak eragindako hainbeste kalbario eta peso zein dolar konparaketen zorabioaren aurrean, nabarmenegi geratuko zaizkio Lucasi ezjakintasuna eta eskuan duen dortoka.

Baina zorionez oraindik ez du Martinak botako dion diskurtso ekologikoaren berri, eta pozik doa gizona, abestiaren azken bokalak ozen errepikatuz, zilarrezko Hilux kamioneta 9. errepidean irristan, hautsa bazterbideetara barreiatuz.

\* \* \* \* \*

–Bizkor! Mugi! Telesita datorrela!

Bost oin pareren zalaparta kale asfaltatu gabeak bigundu du. *Changoak* lasterka atera dira, elkarri bultzaka, on Gabrielen arrantxoaren ataritik. Adobezko eraikinak zoruaren kolore antzerakoa du, baita euren oinetakoek ere.

Azkar dator Telesita, ez die ezkutatzeko betarik emango, eta mutiko bizkorrena nylonezko etxe batean sartu da; atzetik doaz beste laurak. Arnasestuka heldu dira, eta atzamarra ezpainenetan isiltzeko agindu diete barreneko bi haur izuei.

Txanodun jertse gorriko neskatoa erraz antzeman dute lurrezko bidean barrena. Praka arre maiztuak eta zapatilak, behinola zuriak, auzunearen kolorekoak orain. Etxeko atarira heldu da. Adi-adi jarraitzen dute mutikoek haren keinu bakoitza: Kartoizko kaxatik, egunero bezala, aitak gainontzekoekin nahastu duen bere dortoka bereiztera joan da, errutina mekanikoz. Baina lehor geldiarazi du besoa gaurkoan Telesitak. Tarte

batez hala geratu da, eternitate oso batez zelatan dauden *changoentzat*, begi ilunak kartoizko kaxan galduak.

–Apurto egin duk... –xuxurla ausarta mutikoen artean.

–Ixo!

Atera du dortoka kaxatik neskatoak, xingola gorria oskolean loturik duen horixe *changoen* kitzikadurarako, eta begietara so egin dio. Arnasari eutsi diote mutilek, ikara sabelean. Lurrean eseri da, dortoka altzoan. Begizta gorriaren belarritik tira eta askatu egin du, kontu handiz.

*Changoak* elkarri zapladaka hasi dira artega, aireari ere bai.

Bigarren dortoka bat hartu du Telesitak denborarik galdu gabe, eta bizi-bizi etxe atariko enbor argaletik begizta berria atera du. Dortokari lotu dio amultsuki animalia guztiak atzera kaxan sartu aurretik; zinta zaharrarekin eskumuturrari bi buelta eman eta ahurrak astindu ditu. Bi txalo.

Kaxa zamatzuz errepiderantz abiatu da Telesita, goizero legez on Gabrielelek ehizaturiko dortokak bazterbidean saltzera. Mutikoak ez dira elkarri begiratzera ere ausartzen.

–Ospa hemendik, mukizuak! Paretak txikituko dizkidazue zuen txorakeriekin!

Haurra besoetan zintzilik zekarren emakumearen garrasiak atera ditu *changoak* sorgin-girotik, nylonezko errealitatera bueltatzeko.

Ez dute txano gorriko neskatoa jarraitu. Eta aurrerantzean ez dute jarraituko.

\* \* \* \* \*

–Ba al dakizue zenbat urte dauzkan dortoka honek?

Mahai gainean pausatu du narrastia Martinak klase-kideek ondo ikus dezaten, etenuneak dastatuz. Hamazazpi urte laburrekin hizlari trebea da, *maga* hutsa. Gelakoen artean aspertura eta miresmena makina bat aldiz eragindakoa dagoeneko bere *speech* idealista, politiko eta orain, antza, ekologistekin. Apur bat astuna da, bai, baina zein iraultzaile ez?

Inork ez du erantzun, noski, erretorikoa zen galdera.

–Oskoleko uztai zentrifugoak zenbatzen badizkiogu, berrogei. Baina espezie osoaren bizia kontuan hartu nahi badugu berrehun milioi. Eta orain gu hauek akabatzen ari gara hamarkada gutxitan. Zergatik? Diruagatik.

Ikasleak adi dauzka, eta bekaizkeriak zizta egin dio irakasleari *zentrifugo* hitzarekin batera. Eztenkadak barrurago sumatzen ditu neska datuak botatzen doan heinean: portzentajeak, prezioak... *Drogen eta armen atzetik animalia trafikoa da hirugarren negozio ilegal handiena Argentinan* esaldiarekin ahoa betez, ikaskideak hipnotizatuz bere aurpegiaren zentimetro bakoitzari darion sumindura aratz horrekin. Berotasun horren mira sumatzen du halakoetan Javier maisuak.

Hauxe da unea. Beste alde batetik eutsiko dio gaiari.

–Ez dugu ahaztu behar, gainera, gure herrian dortokek izan duten garrantzi bizia. Maiz agertzen dira lurreko dortokak, *Ualu* quechueraz, antzinako ontzietan, hildakoen munduarekin harreman handia zutelako...

–*Che*, Martina, eta dortokak ehizatzea debekatuta zer jan behar dute nylonezko etxeetakoek?

Barre itoren bat entzun da. Adrianek dion guztiari koro automatikoa datorkio atzetik, are gehiago irakaslearen jarioa etetea lortzen badu. Baina oraingoan ez dute argi serio ari den ala ez, ezta modu batean zein bestean horretaz barre egitea zilegi ote den. Hiriko kume hauetako askori ez zaio interesatzen Córdoba hiriburutik haratago dagoen ezer. Santiago del Estero haientzat iparralde koloretsura neguko oporretan doazenean igarotzen duten paraje zatar eta pobre hori besterik ez da. Eta telebistan tarteka ateratzen diren buztin eta nylonezko auzoak.

–Benetan ari naiz. Mendozako amonak esaten zigun errezeta mordoa daudela dortokak prestatzeko –jarraitu du Adrianek–, han zopa jaten da oraindik. Eta

Santiagoko txiroek ere dortokak jaten dituzte besterik ez dutenean. Ez al ditugu guk milioika behi jaten?

–Ez duk gauza bera. Eta, gainera, dortoka gajoak bizirik prestatzen ditiztek.

–Ea, ea. Hori lehen bai, hilezkorak zirela uste zelako, esan bezala, antzinako sinesmenetan, baina egun ez dut uste... –irakasleak bakea jartze aldera.

–Zergatik ez? Karramarroekin ere hala egiten da –ahotsa altxatzen ari da Martina– krudelkeria hutsa da. Eta salmenta ilegalagatik dortokarik gabe geratzen bagara berdin-berdin geratuko dituk zer janik gabe, *boludo!*

–Hona etorri eta kaleko txakurrak jatea dauzkate, hartara bi arazo konponduta kolpe bakarrez.

Orain bai, barre algarak entzun dira. Adrianek ere barre egin du, ezin eutsita. Javier ahotsa galtzen ari da. Listo, izan du iraultzaileak bere momentua. Klasea berreskuratu beharra dauka beranduegi izan aurretik.

–Mila esker, Martina...

–Eta zer egingo dugu orain? –ezin amaitu.

–Zerekin?

–Dortokarekin. Nola bueltatu dezakegu salbu bere bizitokira?

Noski. Beti muturreraino joan behar neska bedeinkatuak. Begiak hertsi ditu, bizarra laztandu, pentsatzen ari dela argi gera dadin.

–Oso galdera ona, Martina –ez zeukan arrastorik ere–. Zergatik ez duzu ikerketatxo bat egiten, denbora hartuz, gero guztioi aurkezteko? Bidaia bat egin zenezake gurasoekin, agian, Santiago del Esterora,...

–Horixe egingo dudala!-determinazioz.

*Noski egingo dunala, "pendeja".*

–Primeran orduan! Eta orain gatozen harira...



\*

\*

\*

\*

\*

–Aurrera! *Dale!*

Dortoka elbarri bat errepiderantz bultzatu nahian dabilta auzoko bi *chango*. Zera da kontua: 9. errepidea bizirik zeharkatzen badu alderik alde, guraria betetzen dizu Gil Gauchitoak. Ez du inork lortu duenik aditu, hiltorian dauden edo gorputz adarren bat falta duten narrastiekin soilik ausartzen baitira probatzen, eta halakoak ez dira oso urrunera iristen. Auto ugari pasatzen da bertatik, kamioiak, *colectivoak*... Bazterbideetan hildako zakurrak zenbatzea besterik ez dago, inork ez du balazarik sakatuko dortoka batengatik. Errepidearen ertzetako biztanleentzat, baina, dirua dira animaliak, eta haiek alferrik galtzea astindu on bat.

Metro gutxi batzuk aurrerago, txano gorridun neskatoak berriro hasi behar izan du xingolaz apainduriko dortokaren uztaiak zenbatzen. Leun pasatzen du atzamarra oskoletik Rositak, edo Telesitak gauzak argitze aldera, hala hots egiten baitio auzo guztiak.

Hamar urte betetzear da Rosa, eta badira lau ia goizero errepide bazterrera hurbiltzen dela lanera, kartoizko kaxa aldean; dortokaz muku batzuetan, bakanekin besteetan, sasoiaren arabera. Udazkenean sartzen ari dira orain, eta nabaritzen da gutxitzen doala ehiza. Aitak dio ez dela lehen bezainbeste dortoka aurkitzen, ezta udan ere. Soldatapeko nekazaria da on Gabriel, baina azkenaldian ez du lanik izaten soroetan, *desmontean* bakarrik eta oso tarteka. Ez daki oso ondo zer den, baina aitak dio horri esker soja gehiago erein ahalko dela eta lan gehiago izango duela. Hala bada, ostera ibiliko da motorrarekin aurrera eta atzera, Kirchenerrek ibilgailu hura eman zionean bezain pozik. Berak ere maite izan zituen aita, ama, ahizpa eta laurak motorrean igota Loretoa inguratu zireneko aldi bakan haiek, nebei bisitan. Baina gero eta gutxiagotan hasi zen aita hura erabiltzen. Horregatik ehizatzen zituen dortokak, eta anai-arrebak bide bazterrean jartzen ziren saltzen. Ama, bestalde, ehule itzela zen, inguruko onena. Baina eskuen dardara hasterako ez zen errentagarria ehun haiek egitea, erosi egiten zituzten. Pena handia eman zion berari, oso gogoko baitzuen ama ehuntzen ikustea.

Orain gainontzeko dortoekin ipintzen du Rosak ama, batetik bestera zamatu ahal izateko, baina behin kaxak zorua ukitzen duenean, besteengandik bereizten du.

Aitak, anai-arrebek uste izan zuten hasieran beste dotokekin ez nahasteko ipintzen ziola lazo gorria, baina ezta urrik ere. Hamaika froga eta trikimailuren ostean argi geratu zitzairen ez zela hala. Erraz ezberdintzen du. Nola ez du bere ama ezagutuko!

Gaurkoz ez zaio beste animaliarik geratzen saltzeko. Lurretik altxa eta errepidea zeharkatu du kontu handiz Rosak, eskubitik datorkion kamioi *azucareroa* oraindik urrun dela iritzita. Xingoladun dotoke kontuz darama besoa, kartoizko kaxa hutsa eskuan zintzilik.

Aitak gorroto du ama kaxan eramatea, eta "ama" deitzea are gehiago. Berak ere nahiagoko luke, noski, lehengo ama balitz baina Gil Gauchitoak batzuetan gauza xebreak asmatzen ditu. Eta behintzat, amak ez du dardara gehiagorik egiten orain. Aitaren kentzeko mehatxuak etengabekoak badira ere, ez du inoiz egin. Gogoko du harekin dantzan ikustea, ia irribarrez ikusi zuen behin. Hala irabazi zuen bere goitizena ere, dotokeari *La Telesita* abesten ziolako hau bularraren kontra hartuta dantzatzen zuenean. Lehenengo urteetan, ttipia zenez, begi hunkituekin begiratzen zuten auzoek. Adinean eta garaieran gora joan ahala, zeharkako begi eta txutxu-mutxuengatik aldatu zen, baina:

*Amarekin batera burua galdu zuen, koitaduak. Aitari galdetu omen zion: "eta ama?" eta on Gabrielelek, hitz gutxiko gizona izanik, "joan egin dun" esan zion, azalpen gehiagorik gabe. Eta haurrak ez zuen sekula ezer gehiago galdetu. Ohartu zirenerako dotokearekin lo eta guzti egiten zuen! Ama deitzen dio gajoak!*

*Telesita* izango zen handik aurrera.

Ez zen egia, ordea. Hantxe egon ziren anai-arreba guztiak aitarekin, ama ehortzi zutenean. Negar egin zuten, aitari ere bi edo hiru malko zenbatu zizkion. Lurrezko tontorra osatu zuten gorpuaren gainean, eta gero egurrezko gurutzea ipini buruan. Ez zioten harizko lauzarik jarri, loreak soilik eta harri txikiak muinoaren inguruan. Berak ez zuen negarrik egin jada hutsik zegoen gorputz hori lurpera sartu zutenean. Bularraren aurka estutzen zuen amarekin ikusi ahal izan baitzuen ehorztea.

Errepidearen beste aldera heldu da Rosita, eta zuhaitz lehor baten gerizpean geratu da, enborrari iltzaturik dagoen egurrezko etxetxo gorri baten aurrean. Gauchitoaren irudia dago barruan: bibote mardula ezpain gainean, zinta gorria bekokian. Gurutze gorria beti bizkarra sostengatuz. Adarretan tamaina guztietako oihal zati eta lazoak daude loturik, gorri-gorriak guztiak. Gil Gauchitoaren aldarera hurbildu

da Rosa, zinta zaharra eskumuturretik askatu eta adaska batean zintzilikatzera. Dortokaren xingola bera ez den inork ukitzen duen aldiro errepikatzen du hau. Gauchitoari errezatzen dio gero, ama onik mantendu dezan.

*Gil Gauchittoa,*

*xalotasunez eskatzen dizut*

*zure bitartez bete dadin*

*Jainkoaren aurrean, eskatzen dizudan miraria...*

Amarengandik ikasi zuen errezo hura. Astero joaten ziren aldarera, Gauchitoari lazo gorria jarri eta bere gaitza hobe zedin eskatzera. Amari eskuek gero eta dardara handiagoa egiten zioten eta berak pozik laguntzen zion lazoak jartzen, nahiago zuen Gauchitoarengana joan bide bazterrean dortokak saltzea baino.

Bisita haietako batean gertatu zen, errezoaren erdian.

Ama ohi baino tristeago zegoen egun hartan, edo nekatuago. Begirada astuna zeraman, mate egosi poltsatxoak ziruditen begi azpiek. Eskuen dardarizoa izugarri bortiztu zen errezoan zehar, gorputz guztira hedatuz. Rosita ikaratu egin zen, izozturik, amaren astinduei begira.

–Hoa! Hoa! –amak, besterik ezin esan.

Korrikari eman zion azkenean, errepidea gurutzatzeko tarte amaiezina itxaron eta ahizparengana heldu zen, ohiko salmenta lekuan zegoena. Hatsanka jazotakoa kontatu bezain pronto lasterka abiatu ziren biak aitarengana.

–Geratu hemen –esan zien on Gabrielelek. Eta halaxe egin zuten.

Handik aurrerakoa gainontzekoentzat hala izan zen: "ama joan egin da", negarra, gorpua hilerri hartan sartzea, negarra, jende ugari neba-arrebei burua laztantzen, negarra. Eta handik gutxira betikoa ostera: dortokak, ahizpa hirira ezkontzea, neben tartekako bisitak. Negu hotzak eta uda beroak aita eta Telesitarentzat adobezko gela bakarreko etxean.

Baina han beste zerbait gertatu zen, berak ez beste inork ez zekiena.

Ama hil zen egunean bertan, dortoka agertu zitzaion ametsetan. Dardara xelegre bat egiten zioten elefante ointxoek, eta begi geldoekin begiratuz, amaren ahotsarekin mintzatu zitzaion:

*...eta zure esker on leiala eskainiozu*

*eta lazo gorri berria jarri*

*Gauchitoak badaki:*

*bat baino hobe bi*

*Amen.*

Aztoraturik iratzarri zen. Bihotza taup-taup sumatu zuen sabelean aita esnatu arte itxaron behar izan zuen orduetan. Zaharra zigarroa bildu eta etxetik urruntzen ikusi bezain pronto, ohea atondu gabe, lasterka irten zuen Gauchitoren aldarerantz. Arnasa ebatsi zion ametsetan azaldu zitzaion dortoka horixe aldareren albo batean ikusteak, baina ez zuen lipar batez ere zalantzarik egin: bere ama zen hura.

Gauchitoaren zinta gorria jarri zion, babes zezan. Aitak eman zioten motor berrian ipini zuen moduan bekaizkeria uxatzeko; auzoko haur jaioberriei ipintzen zaien moduan begikorik ez botatzeko. Ez zion inori kontatu, dena den. Ez zekien nola azaldu ama ez zela hil; dortoka bilakatu zela, besterik ez.

*... eta Jainkoaganako fedea*

*eta zukanakoa, Gil Gauchittoa.*

*Amen.*

Muxu eman dio Gauchitoari Rositak errezoa bukatzean eta ama hurbildu dio berak ere

muturraz uki dezan. Kaxa eskuan zintzilik, errepidearen beste alderantz doa, etxera bueltan. *Dortoka badago* salmenta kartela ateratzen ari da auto txiki gorri bat karrilez aldatu eta alboan geratu zaionean.

\* \* \* \* \*

Urdailean korapiloa sentitu du Martinak 9. errepidea hartu dutenetik; kilometroko apur bat gehiago estutzen zaio. Luzea da bidea, aurreratu beharreko kamioiak zenbatezinak, paisaia hutsa eta hitsa. Eta etxe haiek. Mota guztietakoak ikusi ditu jada: adreiluzkoak, adobezkoak asko, txapazkoak. Apur bat barrurago sartuz gero segituan aurkituko lituzke albistegietako nylonezko etxe haiek ere, gobernuak emandako materialarekin eraikiak. Edo probintziak ematen zien nylona? Ez da gogoratzen. Dena den, oraingoan dortoken txanda da.

Zaila egiten zaio animalia haiek imajinatzea paraje lehor honetan, uretik hain urrun. Baina badaude, haiekin negozioa egiteko adina oraindik. Gatzak idorturiko lur hauetan, itsaso galdu baten nostalgian biziko dira, apika.

Koadernoan apuntatu behar du ideia hau.

–Akabo diskoa. Zer entzun nahi dun orain?

–Inporta zaik irratia jartzea?

Asteburu luzea probestu du Martinak Danirekin Santiago del Esterora joan ahal izateko. Amari ez dio grazia zipitzik egin. Aitak muturra okertu zuen, baina bazekielako huraxe egin behar zuela, sakonean bost berak egiten duena. Iphonea magalean darama, bide bazterrean ikusten duen orori gupidarik gabe tiro egiteko. Daniren Nikona atzean utzi dute, gelditzen direnerako.

Zapuzturik doa mutila, beste gidariei Mini Cooper gorritik botatzen dizkien biraoak maiz nahasten dira musikarekin. Ez du ulertzen oso ondo zergatik, gutxitan ikusi baitu asteburu-pasarena proposatu zionean bezain pozik. Ez zuten behin ere gaua

elkarrekin pasa Martinaren gurasoenean ez bazen. Behingoan larrua ohean eta lasai jo ahal izango zutela pentsatu zuten. Baina Danielen umorea txartu samarturik dabil hala ere. Agian ez du esan bezain gogoko gidatzea.

–...dena den –bere buruan baino hasi ez den elkarrizketa jarraituz–, ez al dun kontu hau serioegi hartzen? Zera esan nahi dinat, *secundariako* lan bat besterik ez dun. Ez din ezertarako balio.

Kaiera distiratsurantz bildurik jarraitu du Martinak. Putz egiten dio ile xerlo horailari tarteka, begiak ez estaltzeko.

–Ondo zagon, hala ere –tonua aldatuz–. Unibertsitaterako prestatuko hau behintzat. *Filoko* lehenengo mailan...

–Biologia ikasiko diat.

–Nola? Noiztik hori?

–Aspalditik.

–Baina Filosofia ikasi behar huela esan dun beti!

–Ez. Filosofia gustuko dudala esan diat beti. *Filo* ikastearena hik esaten duk.

Irratiaren bolumena igo du neskak, Kirchnerren alabari egozten zaizkion ustelkeria akusazioak hobeto entzuteko aitzakian.

–Eta dena irakasle buzoi-saltzaile hori liluratzeko...

Ez dio Daniren marmarrari jaramonik egin.

–Gelditu hor!

\* \* \* \* \*

Martinak ez daki zer espero zuen Mini Cooperretik atera eta *Dortoka badago* kartelerantz abiatu denean. Baina hauxe ez behintzat: xingola gorri batez apainduriko

dortoka bularraren kontra babesten duen haur bitxia. Ez du besterik egin, ez du besterik esan, ezta dortoka haiek guztiak askatzeko bere asmo sendoaz hitz egin dionean ere.

Gaztea kezkatuik dago; zalantzak ditu dortoka haiengatik ordaindu beharko ote liokeen. Zuzena al litzateke?

–Berdinak dira –esan du txano gorridun haurrak azkenean, ozta-ozta erabilitako ahots hauskorrez. Martinak eskuan daraman dortoka seinalatu du, atzamarraz.

–Noski.

Bi dortokak parean jarri ditu haurrak, Martinarena honen eskuetatik leunki askatuz. Lazo gorria kendu dio bereari. Biei so dago berriro. Hatz-mamia Martinaren dortokaren oskoletik pasa eta ahapeka mintzatu da tarte batez.

–Berdin-berdinak dira.

Begizta oraindik eskuan, begitartea zimurtu du. Oihuka hasi da gero, lurrari amorruz ostikoka. Xingola bazterbidera jaurti eta salto egin du gainean, haserre.

–Lasai –esaten dio Martinak mekanikoki– ... lasai.

Haurraren kaxa eramateko zuen determinazioa lurrundu zaio neskatoaren ernegu-malkoak ikustean. Sorbalda kolpetxoak ematen dizkio, besarkatzera ausartu gabe.

–Ulertzen duzu orain? Ez dituzu saldu behar. Aske utzi behar dituzu biak –mantso-mantso hitz egiten dio, auskalo zergatik–, daukazun guztiak, euren etxeetara bueltatu daitezten. Egingo duzu? Zuk jakingo duzu neuk baino hobeto non bizi diren.

Haurrak baietz egiten du buruaz, malkoak mahukarekin xukatuz.

Erruki iribarrea eskaini dio Martinak, eta Minirantz abiatu da, pixka bat hunkiturik, pixka bat bere buruaz ezin harroago. Danielen ondoan eseri da, zuzenean koadernoari ekiteko.

– Eta?

–Ulau etxean duk.

–Ulau?

\*

\*

\*

\*

\*

Errepidearen ertzean haur bat dago, hamar bat urtekoa. Gorria da eskumuturrean loturik duen lazoa –bi buelta–, gorria burua estaltzen dion txanoa. Gorrituak ditu begiak. Dortoka bana darama eskuetan. Berdin-berdinak dira, bi elur maluta gatzeko desertuan. Aldi berean jaregin die, abantailarik gabe, eta bideari ekin diote ohi duten lasaitasun ernegarritz, errepidearen beste alderantz. Gauchitoaren aldarerantz.

Errezoari lotu zaio neskatoa, 9. bideko bazterrean eserita.